

## Erresuma Batuko egiaztapena planaren eguneratzea

### Laburpena

**Elikagaien Segurtasuneko Britainiako Agentziak (FSA) Erresuma Batuko Kontrolerako Plan Nazionalaren azken bertsioa (2007ko urtarrila- 2011ko martxoa) argitaratu du. Bertsio hori argitaratu aurretik, Elikagai eta Landa Gaietarako lau sailek eta Osasun eta Segurtasun Sailak berrikusi zuten Plana elkarlanean. Planaren berrikusketa eta Batzordera urtero igortzen dituen Plana ezartzeari buruzko txostenak argitaratuta, FSAk 882/2204 Araudia betetzeaz gain, berriz utzi du agerian gardena dela, ondo egiten dakiela eta koordinazioa bultzatzen duela Elikagaien Segurtasunerako eragile guztien artean**

### Lege onarria

Pentsuen eta elikagaien inguruko arauak betearazten direla bermatzeko kontrol ofizialei buruzko, zein animalien osasunari eta ongizateari buruzko **882/2004 Araudiak** honako hau xedatzen du: 2007ko urtarrilaren 1erako estatu kide guztiek izan behar dute Kontrolerako Plan Nazional Integratua (PNC). Plan hori urte anitzekoa da, hau da, 3 eta 5 urte bitarteko iraupena izango du. Araudi

horren arabera, planek informazio orokorra izan behar dute bai kontrol ofizialen sistemen egiturari buruz, bai eta antolaketari buruz ere, eta eguneratu egin beharko dira aldian-aldian egoeraren eboluzioaren arabera.

### Lankidetzak

Erresuma Batuan 2007ko urtarriletik 2011ko martxora bitarteko Kontrolerako Lehenengo Plan Nazionala prestatu zuten **elkarlanean** Elikagaien Segurtasuneko Britainiako Agentziak (FSA), Ingurumen, Elikadura eta Landa Gaietarako Sailak (DEFRA), Osasun eta Segurtasun Sailak (HSE), eta Eskoziako, Galeseko eta Ipar Irlandako Landa eta Elikadura Gaietarako sailek (SGRD; RA; DARD).

### Eskumenak

Britainiako PNCren helburu nagusia da, batetik, ziurtatzea ezarri egiten dela animalien eta gizakien elikadurari, animalien osasunari eta ongizateari, eta landareen osasunari buruzko araudi erkidea; eta, bestetik, sistema eraginkorrak abian jartzea araudia betetzen dela zaindu eta egiaztatu ahal izateko. Halatan, Erresuma Batuko PNCk zehaztu egiten ditu zein diren gizakien eta animalien elikadura,

## Erresuma Batuko ediaztapena planaren eguneratzea

animalien osasun eta ongizate, eta landareen osasun arloko kontrolak gauzatzeko erakunde eskudunen **zereginak eta erantzukizunak**. Nahiz eta 882/2004 Araudia ez den aplikatzen landareen osasun arloko kontroletan, beharrezkoa da gai horri buruzko erabakiak gehitzea; beraz, Erresuma Batuak kontrol guztien planteamendu integratua egin du, eta bere PNCn sartu ditu landareen osasunarekin zerikusia dutenak, 2009/29/EC Zuzentarauaren arabera.

### Koordinazioa

Erresuma Batuko PNCK ikuspegi orokorra eskaintzen du: erakunde guztiak **koordinatu** egiten dira elkarlanean aritzeko eta sektore guztietan egiten diren kontrolen sendotasuna eta eraginkortasuna hobetzeko mekanismoak ditu. Azken puntu hori ezinbestekoa da ziurtatzeko gabeziarik ez dagoela, eta elkarlanean aritzen direla animalien, landareen eta gizakien osasuna zaintzeko eta kontsumitzaileak babesteko. Koordinazio horren oinarria alde interesatu guztien arteko "lotura" taldeek osatzen dute. Talde horiek aldian-aldian elkartzen dira planak gauzatzean koordinazioa eta lankidetzaz

eskaintzeko eta kontrolak arlo arriskutsuetan gauzatzeko, horrela beharrezkoak ez diren kontrolak saihesten baitituzte. Talde horien funtzionamenduaren adibide bat da Animalien Elikadurarako Legea Sendotzeko Lotura Taldeak (AFLELG) animalien elikadura arloko erakunde eskudunentzat adostu duen **Elkar aditzeko Memoranduma**. Memorandum horretan jarraibideak zehazten dira koordinazioa hobetzeko eta gainjartzen diren erantzukizunak aztertzeko

### Kontrol ofizialak

Planaren iraupenerako, Erresuma Batuak arlo horretako erakunde eskudun guztien artean **adostutako egutegia** garatu eta ezarri du kontrolak gauzatu eta berauen eraginkortasuna ziurtatzeko. Horretarako, lehentasunak ezarri dira arriskuen eta jardueren arriskuak mailakatzeko irizpideen arabera. Halaber, berariazko hitzarmenak sinatu ditu Europako Batzordearekin eta beste estatu kide batzuetako erakundeekin kontrolak gauzatzeko.

## Erresuma Batuko ediaztapena planaren eguneratzea

Britainiako PNCren oinarrietako bat da Elikagaien Zaintza Sistemen *Datu Basea (UKFSS)* sortzea. Datu Base horretan sartuko lirateke erakunde eskudun guztiek jasotako laginak, eta egindako analisien emaitzak, elikakate osoaren ikuspegia izateko eta gabeziak edo/eta bikoiztasunak antzemateko, bai eta sor litezkeen gaixotasunak antzemateko ere. Animalien Osasuna eta Ongizate eta Landareen Osasun arloan ere badira ikuskapen eta kontrolerako plan koordinatuak. Elikakateko eragile eta ikuskatzaile guztientzat prestakuntza programak gauzatu dira batera, bai eta higie arloko legeak ezartzen dituen baldintzak betetzeko eragileentzako beka eta laguntza programak ere.

Britainiako PNCren beste oinarrietako bat da eragileei legeak ezartzen dituen baldintzak betetzen laguntzeko Gidaliburuak, DVDak, liburuxkak, protokoloak eta praktika-kodeak eskaintzea

### Prebentzioa

**Prebentzio estrategiari** dagokionez, FSAk on-line bitartekoak garatu ditu industriarekin batera gorabeheren berri eman, sor litezkeen gaixotasunak identifikatu eta aurrezaintzako neurriak garatu ahal izateko. Gainera, 2008.

urtean abian jarri dituzte hainbat prebentzio plan, besteak beste: Hegazti-gripearena, Txerri Izurri Klasikoarena, animalien gaixotasun exotikoena eta uretako animalia exotikoen gaixotasunena.

### Ikuskaritzak

Erakunde eskudunek zerbitzu eraginkorra eta sendoa eskaintzen dutela ziurtatzeko, Planak **kontrol-ikuskaritzen estrategia** bat biltzen du. Estrategia horren oinarria gardentasuna da. Hori dela eta, erakunde eskudun guztiek egindako kontrol-ikuskaritzen txostenak argitaratzen dira, bai eta ondorioak, gomendioak eta ekintza zuzentzaileak ere. Gainera, ikuskaritza horiek aurkitzeko **bilatzailea** jarri da eta ikuskaritzetan identifikatutako praktika egokiak argitaratzen dira.

### Gardentasuna

Azkenik, Batzordera igortzen den urteko txostenean zehazten dira **plana ezartzearen aurrerapenak**. Txosten horretan aztertzen da planean zehaztutako helburu estrategikoak bete diren ala ez. Emaitza horiek aztertu ondoren, PNC proaktiboki kudeatzen da, eta, beharrezkoa bada, eguneratu

## Erresuma Batuko ediaztapena planaren eguneratzea

egiten da. Txosten horiek Europako Batzordeko ikuskaritza-zerbitzuek (FVO) erabiltzen dituzte estatu kideetako kontrol-ikuskaritzak antolatzeko. Gainera, Europako Erkidegoan egiten diren kontrolen ikuspegi orokorra izaten laguntzen dute.

[www.food.gov.uk/foodindustry/incidents](http://www.food.gov.uk/foodindustry/incidents)

- *Gidaliburuak eragileentzat*

<http://www.sfbtraining.co.uk>

- *Ikuskaritza txostenen bilatzailea*

<http://www.food.gov.uk/enforcement/auditandmonitoring/auditreports/>

### Lotura duten dokumentuak

- *Kontrolerako Plan Nazionala, 2007-2011*

<http://www.food.gov.uk/multimedia/pdfs/uknationalcontrolplan.pdf>

- *Plana ezartzeari buruzko txostena, 2007*

<http://www.food.gov.uk/multimedia/pdfs/ncp2007annualrep.pdf>

- *Plana ezartzeari buruzko txostena, 2008*

<http://www.food.gov.uk/multimedia/pdfs/enforcement/ncpannualreport2008.pdf>

- *Elkar aditzeko Memoranduma*

[www.food.gov.uk/enforcement/enforcement/aflelg/aflelgmembertor#h4](http://www.food.gov.uk/enforcement/enforcement/aflelg/aflelgmembertor#h4)

- *Gorabeheren berri ematea*